

GETXOKO MALAKATEAK EZAGUNARAZTEN

Has gaitezen lantxo honetan MALAKATEA zeri deitzen diogun eta zer den hobeto ezagutzen.

Ni neuk eraikuntza honi buruz eduzki nuen lehen notizia Getxon argitaratzen zen aldizkari batetan topatu nuen. GALEA zuen izena, zuzendaria Ramiro Pinilla idazle getxoztarra zen eta artikulua ¿Qué esconden los enigmáticos malacates? zuen izenburua. Sinadura Joaquín Cárcamo aparejadorea eta Industria Patrimoniaren euskal elkartearen lehendakaria zen (eta da nik uste). Argazkilaria Santiago Yaniz.

Getxon badago plaza bat getxoztarrok Malakatearen plaza izenez ezagutzen duguna eta Maidagan plaza izena duena. Honatx:



Maidagango Malakatea. Irudia egilerarena.

Bertaratzen bagara ohartuko gara eraikuntza honen goikaldean Bilboko harmarria dagoela, Bilbo hitza eta 1900 plakadun batez hornituta. Lehenego begiratutik erakartzen digute arreta bere adreilu gorriek eta harlanduzko ertzek. Non ikusten dugu horrelako material eta akabera dituen beste eraikuntzarik?. Bilbon noski.

Zergatik Bilboko harmarria?. Bada eraikuntza bera, bere bezalako beste laurak eta guztiek estaltzen duten uren garraio sistema osoa, Bilbok eraiki zituelako. Eta Bilboko jabetza du sistema osoak?. Bai, ikusten dena eta ez denarena. Beste gauza bat da eraikuntza hauek dauden lurrak, hau da, non dauden. Lurren jabetza desberdinak daude. Publikoa (Getxo eta agian Bilbo) eta pribatua.

Baina zertarako egin zuen Bilbok gaurko gure atentzioa deitu duen sistema guzti hau?. Bada, Bilbok beren ur zikinak (fekalak) ibaira bota beharrean, itxasora zuzenean

jaurtikitzeko diseinatu eta egin-egin zuen. Hau guzti hau 1891 eta 1901 urteen artean. Injenieritza lan bikaina eta aintzindaria izan zen hainbat arrazoiengatik, lehena, ur zikinak ibaitik kentzen ziren, osasun publikoko arazo anitz gaindituz garrantzitsuena bera eta, bigarrena, erabilitako porlanezko tutuak estatuan (eta Europan ere ia) lehenengoak izan zirelako .

Kontua da Bilbok eta bere ibaiaren inguruko eskualdearen populazioa izugarri emendatzen ari zela, XIX.mendean, orduko industri-iraultzaren kariaz (Siderurgiaren eraginez gehien bat: Labe garaiak eta abar). Ikus taula:

Bilboko poulazioa XIX. Mendean

	Bilbo	Eskualdea
1857	17.923	27.644
1887	50.772	52.326
1900	83.306	81.480
1910	93.312	103.780
1920	117.122	136.267
1930	161.987	151.091
1939	207.526	

Iturria: Manuel Basas Fernandez, Bilbao 1969. Ed: Bilboko Udala.

Apur bat behatuz gero 1857tk 30 urtetara eskualdeko populazioa ia bikoztu egin zen eta Bilbokoa ia hirukoiztu.

Gure helburuari dagokionez pentsatu behar dugu jende guzti honek eta industriaren ur zikin guztiak Ibaizabal ibaira isurtzen zirela.

Aldiberean ur potablea eraman behar zen jende guztiaren etxeetara. Urte hauen aurretik ura ibaitik bertatik hartzen zen eta honek osasun publikoan arazo izugarri eta larriak ekarri zizkion Bilbo eta eskualdearen populazioari. Hileta tasa izugarri igo zen bertan.

Orduan 1891an ireki zute lehiaketa publiko bat ur zikina batu eta tuberien bitartez Bilbotik Abraraino eramateko. Recaredo de Uhagon injeniaritzaren “Men sana in corpore sano” proiektuak irabazi zuen lehiaketa. Urak San Ignazio auzko Elorrietako biltokira eramago ziren eta bertatik 60 cmko diametro zuen hodi baten bitartez, eta ponpaz bultzaturik, Getxoko kontalderaino eramango ziren (gaur Tunelboka izenez ezagutzen dugun Flyscharen kala ederretaraino hain zuzen.



Elorrietako ponpa-etxe. Iturria: <https://ondarelagunak.eus/bombeadora-de-elorrieta/>



Tunelboka. Iturria egilearena

Esan dut ur-kondukzioa tutu zuzen bat zela, pendiente gutxikoa, baina kostaldera hurbildu hala, goiko lurra eta beraren artean kota diferentzia dago. Horri aurre egiteko, malakateak eraiki ziren bai eraikuntzako materialeak jesteko eta baita

ere etorkizuneko erregistro eta mantenubide moduan. Euren azpiko sakonera beraz haunditzen doa. (Desnibel maximoa 50 m gutxigorabehera)

Ur-kondukzioa 1902an hasi zen erabiltzen arrakastaz, baina populazioa hainbeste handitzen zen garaiotan 1920an ez zela nahikoa ur zikin guztiak batu eta garraiatzeko. Jaurtipenak ibaiara itzuli ziren.

Beste ezaugarri bat badute, alegia, estalkirik gabe diseinatu ziren. Ez dakit zergaitik edo zertarako. Hori dela eta, baina, barruan landaredi ugari hazten da.

Lana egin zen eta Elorrietako ponpa-etxeaz gain bere beste aztarna ikusgarriak agertzen zaizkigu begien aurrean. Getxotik ibiltzen garelarik, 2.759 m-ko luzera duen tutuen gaineko Malakateen hilara dugu ageri-agerian.

Getxon zer ikusten dugu?

Bost Malakateen hilara da lan honen azaleko aurpegia.

Getxon dagoen Uren kondukzioaren gaineko lehenengo eraikuntza Ollarretxeko Malakatea da. Gaur egun ez da ikusten sasiek janda dagoelako. 1996ko uztailaren Galea aldizkarian ere Cárcamok aipatzen du ez zela ikusten. Egin zen garbiketa bat eta 2014ean egoera argazkian ikusten dena bazen ere, gaur berriro ikustezina dago.



Ollarretxeko Malakatea

Oraintxe badago martxan etxeak eraikitzeako proiektu onartu bat eta Malakatea hezituraren barruan geratu da. Esperantza daukat garbitu eta txukundu egingo dutela arkeologia industrialaren mesede eta oroimen.

Bigarren Malakatea Osabena tokian dago, gaur Maidagan plaza. Honexek dauzka Bilboko harmarria eta 1900 data. Ikus lan honen lehenego argazkia.

Hirugarren eraikina Polikiroldegiaren atzeko parkean dago. Hau ondo mantenduta dago.



Osabenako Malakatea 2007an. Argazkia egilearena.

Laugarrena Kortiñen dago, hau da, Andra Mari eskolaren atzean. Hau ere nahiko zikinduta dago eta heltzea zail samarra gertatuko zaigu, ez bada eskolako patiotik.



Kortíñeko Malakatea 2005ean. Argazkia egilearena.

Bosgarrena Matxinkortinekoa da; hau da, Galea golf zelaiaaren atzeko hormaren ondokoa. Oso-oso estalita egon da eta aurten 2026an garbitu da apur bat, heltzeko lain. Honi porlanezko zolu egin zitzaion instripuak ekiditeko pentsatu nahi dut. Bera da sakonera gehien duena (lursoro horren altueratik itxasora hain zuzen) eta hurrengo aztarna Tunelboka kalaren irteera izanik.



Matxinkortineko malakatea. Argazkia egilearena.

Azken eraikuntza. Tunel boka. Oraindik ere geratzen dira bere barruko ponpa baten hondakinak. Horretarako kalara bertara jeitsiera arikutsua egin behar badugu ere.



Ur zikinen irteera Tunelboka 2017an. Argazkia egilearena.

Bedi lantxo hau, otsailaren 5ean zuzendu dudana, Uraren Eguna hain zuzen, historiartxo honen bitartez Uraren ustiaketa (hornidura, erabilpena garbiketa, bererabilpena eta abar) duen garrantzia.

Euskal herritik begiratuta pentsatu zitekeen ura soberan dugula eta ibaieetatik hartzearekin nahikoa dugula, baina ez da horrela. Eta horren ebidentzia da Euskal Herrian dugun uren inguruko egitura osoa (Bilbo Handiaren Partzuergoa adibidea bat da). Etorkizunerako prestatzeko erabil dezagun duguna eta asma ditzagun erabiltzenerako metodo berriak.

Kontsultatutako testuak:

GALEA aldizkaria 1996 uztailko 248 alea.

ONDARE LAGUNAK bloga: <https://ondarelagunak.eus/bombeadora-de-elorrieta/>

BERRIA egunkaria 2024-05-17ko alea.

https://www.berria.eus/lurraldeak/bizkaia/lehenengo-saneamendu-sarea-bizkaian_2125158_102.html

PANEL INFORMATIBOA. Federación de Asociaciones de Ingenieros Industriales de España. Comisión de Patrimonio Industrial. Joaquín Cárcamo eta beste batzuk egindako

EL BILBAO DEL PROGRESO: gestión municipal y servicios públicos(1876-1920). Historia Contemporánea 52. alea: Susana Serrano Abad. EHU

BERRIA egunkaria. Giza arrastoa harrietan artikulua.

https://www.berria.eus/bizigiro/giza-arrastoa-harrietan_1181417_102.html

Jon Aurtenetxe Marcó. Irakasle erretiratua